

1997ko irailaren 26a. 65. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

ANDOAIN

- Herri azpigarautzako dirulaguntzak
- Martin Ugalderi omenaldia

BILLABONA

- Udalak argibide errekurtsioa aurkeztu du

ZIZURKIL

- M. Angeles Lazkano alkate

BASERRIA

- Artzaintza gazteen erreleboaren zain

ELKARRIZKETA

- Iñaki Eizmendi

KIROLA

- M. Angel Perez arbitroa
- Munduko txirrindularitza txapelketa



Beterri-Aiztondoko ZINEMALDIA

1. AURKIBIDEA
AIURRITARRAK
J. A. Rodriguez «Txiki»
"Zenbakiak".
2. IRAKURLEAREN TXOKOA
3. LARRAUI.
Bilbotarrak Larraulen.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Ikastaro aukera paregabea.
Martin Ugaldere omenaldia.
Herri azpigaratuentzako dirulaguntzak.
7. ASTEASU.
Ikastaroak Lizardi etxean.
- 8-9. BILLABONA.
Euskaltegia merkataria euskalduntzen.
Udalak argibide errekurtsioa aurkeztu du.
10. ZIZURKIL.
Maria Angeles Lazkano alkate.
11. BASERRIA.
Artzaintza, gazteen erreleboaren zain.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Beterri-Aiztondoko zinemaldia.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Iñaki Eizmendirekin hizketan.
- 16-17. KIROLA.
Miguel Angel Perez Lasa 1. mailako arbitroa.
Munduko Txirrindularitza Txapelketa.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. BETERRIKO LIBURUA LEHIAKETA
20. AGENDA



J.A. RODRIGUEZ
«TXIKI»


«ZENBAKIAK»

Euskal kooperatibismoaren historia ikertzen ari den lantalde baten partaidea naiz. Hori dela eta, duela egun batzuk kooperatiben etorkizunaz eztabaidatzeko Bilbon antolatutako mintegian parte hartzeko aukera izan nuen. Bertan 25 aditu bildu ziren, eta mintegiburu Espainiako Ekonomia Ministroa den Rodrigo Rato jauna izan genuen. Egia esan, kooperatibei buruz gauza gutxi esan zuen Ministroak, ez ordea Gobernuaren politika ekonomikoari buruz, hortaz luze aritu zitzaigun. Zer esateko? Ba, Aznarrek behin eta berriz diona: *España va bien*. Ekonomia alorrean benetako loraldia omen dugu oraingo hau. Handik bi egunera, aurtengo bigarren hilabetekoari dagozkion euskal ekonomiaren datuak ezagutu genituen; baikorrak eta pozgarriak, benetan. Apiril eta ekain bitartean gure ekonomiak %3,6 egin du gora, eta gainera, aurrikuspen guztien arabera, hazkuntaldia sendoa dirudi. Eta enplegua? Non eta nola kokatu behar dugu langabeziaren arazoa ekonomiaren hazkunde testuinguru horretan? Horretaz hitzegiterakoan, kopetak iluntzen hasten dira. Behin eta berriz errepikatzen zaigu: bide onetik goaz, enplegua sortzen ari gara. Eta egia da, azken hiru urte hauetan Euskal Herrian 32.000 enplegu garbi sortu baitira. Baina, tamalez, txanpon horrek badu beste aurpegia ere. Oraindik ere, gure artean 197.621 langabetu ditugu, oraindik ere gure langabezi-tasa %21,1ekoa da, eta, are larriagoa dena, oraindik ere 2 gazteetatik 1 lanik gabe dago. Zer esan nahi dut honekin? Hauxe, besterik ez: hazkunde ekonomikoak ez digula langabeziaren arazoa konponduko. Lagungarria dela eta izango dela, noski, eta ez da gutxi, baina garbi dago arazoa sakonagoa dela, estrukturala, beste irtenbide batzuk eskatzen dituena. Denoi, ez politikoei bakarrik, ahoa betetzen zaigu, langabezia dela gure gizarte honek duen arazorik nagusia esaten dugunean. Ea Pinotxori bezala guri ere sudurra luzatzen hasten zaigun! Benetan, batzuetan kontrakoa pentsatzen dut, langabezia lanik ez dutenen arazoa bilakatzen ari dela, lana dugunok horren kezkatu bagina, honezkero arazoa benetako soluzio bidean bailegoke. Nion bezala, ongietorria hazkunde ekonomikoak, baina horretaz gain, ziuraski beste neurri batzuk beharko dira, elkartasun-neurriak, hain zuzen; denongan, lana dugunongan ere, eragina izango dutenak. Prest al gaude?

Argitaratzailea: Manuel Laramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oartzabal eta Ainhoa Aizartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.


OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.





Txapela

Idea bikaina eta beharrezkoa iruditzen zait Dr. Huizi kalean egin den bezala kotxeak norabide bakarrean joateko kaleak jartzea. Orain arte erokeria zen bertan ibiltzea; kotxeak alde batetik bestera, batzuk aparkatzen, eskolatik ateratako umeak korrika...
O.Z.A. (Andoain)



Makila

Oso ongi iruditzen zait kotxea gaizki aparkatzen dugun herritarroi multak jartzea. Baina gauza bera egiten duten batzuei ez zaie multak jartzen: udaletxe aurrean, Goikoplazan, beren kotxea aparkatzen duten udaltzain eta udalekoei, hain zuzen. Hori ez zait batere ongi iruditzen.
Ane Amondarain (Andoain).



Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



JOSEBA
ALTZARIAK

Eskaintza bereziak!!

KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN

BILBOTARRAK LARRAULEN

Bilboko Irala auzoko 17 gazte eta AEK-ko hiru irakasle izan dira Larraulen irailaren 15etik 20ra bitartean euskara ikasten. Eskurtze institutokoak dira guztiak, A ereduak, eta Larraulgo astebeteko barnetegia nahiz aurreko astean Bilbon egin zuten ikastaro trinkoa euskara indartzeko asmoarekin antolatuta-koak ziren. Hau da, euskara eskolako ikasgaia baino gehiago dela ikusteko eta euskaraz hitz egitera motibatze-ko xedea izan du guztira bi aste iraun di- tuen ikastaro trinkoak.

HERRITARRAK NON?

Bilbotar jatorrak izanik, Athletic-eko jarraitzaile sutsuak dira guztiak, eta nola ez, nahikoa broma eta barre egiteko aukera izan dute Larraulgo Hez- kide eskolako aterpetxean. Giro erdalduncan bizi diren gazte hauek herritarrekin hitz egiteko aukera askorik ez dutela izan esan digute, "inor ez da ibiltzen herri- an!", eta egin dutenetan askotan erdaraz hitz egin gmen dute: "Beraiek ulertzen digute guk euskaraz hitz egiten dugunean, baina guk beraiei...". Izan ere, eta aste horretan eginiko egu- raldi onak zirela eta baserri- ko lanak egiten jardun zu-

ten herritar gehienek, herrira jaitsi ere egin gabe. Hala ere, eta eduki dituz- ten harremanen arabera, larrauldarrak oso jende jatorra direla esan digute.

EUSKARA IKASTEN JARRAITU- KO OTE DUTEN DUDAN

Goizean eta arratsaldean aritu dira euskara lantzen joku, jolas eta ekintza gehiagoz baliatuz. Arratsaldean, behin askaldu ondoren, kirola egiteko edota pasatzeko aukera izan dute. Irakasleen "txapak" entzun behar izan dituztela eta kexatu arren, ongi pasa dutela adierazi digute. Ea euskara ikasteko abenturari jarraipena ematen dioten!

Ikusentzune- ko emanaldiak

Urriaren 10 eta 17an mendiari buruzko ikusentzune-koak izango dira ikusgai Larraulgo Kultur Aretoan arratsaldeko bederatzi t'erdietan. Amaia Elosegik eta Felipe Uriartek eskainiko dizkigute aipaturiko emanaldiak.

Nafarroa bidaia

Urriaren 6an hirugarren adineko- ei zuzenduriko txangoa antolatu- ko dute Aiztondo bailarako herri- tarrentzako. Egunpasa egingo du- te, eta goizean Gares herria bisita- tu ondoren, Iratzen bazkaldu eta Lizarran pasako dute arratsal- dea. Informazio gehiagorako deitu 693930 telefonora.



Klaseak bukatu ondoren atsedena hartzen.

➔ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA- LI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D.

Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko☎ : Laneko☎ :


ANDOAIN

Kultur etxeko ikastaroak

Andoaingo Udalak 1997-98 ikasturterako ikastaroak antolatu ditu. Zazpi ikastaro ezberdin izango dira eta urritik maiatzara bitartean eskainiko dira. Zeramika, arte aplikatuak, pintura eta marrazketa (hasierakoa eta jarraipena), egur taila, argazkigintza eta bideo tailerra. Matrikulazio epea irailaren 22tik urriaren 2ra bitartean izango da. Urigain kultura etxean, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago 300823 telefono zenbakira deituta.



Leire Tapia



TXIRRINDULARIAK ERREPIDEEN JABE

Urriaren 6an, Donostiara joatekoa naiz egin behar batera. Kotxea edo autobusa hartu eta Lasarteko herritik Gipuzkoako hiriburura gerturatzeko asmoa dut. Baina, hara non, nire planek bertan behera gelditu beharko dute. Zergatia? Donostian ospatuko baita 1997ko Munduko Txirrindulari Txapelketa. Ondorioz, errepide mozketak egongo dira N-1a, Donostiako bidean, eta G-I 131, Urrietako bidean. Egun hauetako ordu jakin batzuetan txirrindulariak soilik ibili ahal izango dira bide hauetatik.

Txapelketa honek ekarriko dituen ondorioak, desberdinak izango dira. Batetik, enpresa txikiak jasango dituzten galerak handiak izango dira, beren banaketak aste horretan zehar ez direlako normaltasun osoz egingo. Enpresa handiei dagokionez, kalteak jasango dituzte, baina hauen iraunbizitzeko ahalmena enpresa txikiena baino handiagoa da. Bestetik, Donostiako komertzio eta hotelek irabazi handiak aterako dituzte.

Ikusten den bezala, ez da dena polita izango Munduko Txirrindulari Txapelketa honen inguruan. Jende, enpresa, eskola, kamioilari askok jasan beharko ditugu honen ondorioak, askotan kaltegarriak izango direnak.

Gas industrialeko jartzeko lanak

Gas industrialeko hodiak jartzeko lanak hasi dira. Kaletxiki eta Krafft enpresa bitartean ezarriko dira gas industrialeko hodiak eta lan horiek bukatzeko hiru hilabete epea ezarri du Udalak. Lan horiek direla eta, Kaletxikira Gokoplazatik sartu beharko da eta irten berriz, orain arte sartzan zen lekutik, Berrozpeko plazatik.



Ikastaro aukera egoitza sozialean

Nahiz eta emakumezkoak izan ikastaro hauetan parte hartzen duten parte hartzaileen gehiengoa, herritar guztiei zuzenduriko ikastaroak dira. Hogeita hamar urte baino gehiago daramatza lanean famili eta gizarte hezkuntzarako egoitzak eta bere lan jardunaren ardatzak lankidetzak eta partaidetzak dira. Beraz, eskariei jarraituz, azken urteotan hainbeste arrakasta izan duten ikastaroak ere eskainiko dira aurretik. Horien artean, sukaldaritza, pintura, antigimnasia, slowgym-a, tai-chia, yoga, eskulanak ...

Informazio gehiago Agustin Leitza kaleko 21 zenbakira joan edota 590514 telefono zenbakira deituz gero.

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

ILLUMBE
EDURNE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



ILLUMBE, S.L.

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

Hirugarren adinekoentzako ileapaindegi zerbitzua

Amrosia Olabide zerbitzu sozia- len egoitzan jarriko dute ileapain- degi zerbitzua. Ileapaindegiko lan- ak oso aurreratuta dauden arren, oraindik ez da martxan jarri. Ile- apainketa lanak nork egingo dituen erabaki ondoren zabalduko dute zerbitzua. Zerbitzu horren onura- dunak jubilatua eta pentsionistak izango dira. Hasiera batean ezarri- ko den ordutegia honako hau da:

Astelehenetik ostiralera:

Goizez: 10:00etatik 13:00etara

Arrats.: 16:00etatik 19:00etara

Larunbatetan:

Goizeko 10:00etatik 14:00etara

Buruntzako indusketa lanak

lazko lanei jarraipena eman as- moz, irailaren 22an bigarren lan- aldiari hasiera eman diote. Urria- ren 4a bitartean Aranzadi zientzia elkarteko kideek eta zenbait andoaindarrek hilerri zaharreko ind- usketa lanetan jardungo dute. Ind- usketa lan horiekin ermita zaha- rren inguruko informazioa osatu ahal izango dute.

I. boleibol txapelketa

Leitzaran boleibol taldeak Allu- rralde kiroldegikoan laguntzare- kin I. boleibol txapelketa antolatu du asteburu honetarako (Irailak 27-28). Gutxienez lau eta gehie- nez sei lagunek osatutako taldeek hartuko dute parte bertan. Nes- kez, mutilez edota neska-mutilez osatu ahal izango dira taldeak eta Allurralde kiroldegian egingo dira partiduak.

KIROLA EGITEKO AUKERA

Andoaingo Kirol elkarten klu- bak (AKEK), Ondarreta-Lei- tzaran, La Salle-Berrozpe eta Aita Manuel Larramendi ikaste- txeen laguntzarekin aurtengo ikasturte- rako igeriketa, gimnasia erritmikoa eta tenisa lantzeko ekintzak antolatu ditu.

Lehendik kirol horietan parte hartu duten ikasleak irailaren 29an hasiko

dira kirol ikastaro horietan parte har- tzen. Ikasle berriak berriz, urriaren le- henean. Ikastaroak hasi aurretik ikas- tetxera jo ezazue informazio gehiago jasotzeko. Bestela, kiroldegitik pasa eta igeriketan David, gimnasia errit- mikoa Lidia eta tenisean Xabier izan- go dira kirol horren berri emango du- tenak

	MAILA	EGUNAK	ORDUA	HAUR KOP. GEHIEN.
IGERIKETA				
Benjaminak	1	astl-oste.	17:00	15
Benjaminak	2	astr-oste.	18:00	15
Alebinak	3	astl-astz-osti.	18:00	20
Infantilak	4	astl-astz-osti.	19:00	20
Infantilak	5	astl-osti.	19:00	20
GIMNASIA				
ERRITMIKOA				
Pre-benjaminak	0	astz-osti.	17:00	20
Benjaminak	1	astl-oste.	17:00	20
Alebinak	2	astl-astz-osti.	17:00	20
Infantilak	3	astl-astz-osti.	18:00	20
Kadeteak	3	astl-astz-osti.	18:00	20
TENISA				
Alebinak	1	astl-astz.	17:00	12
Infantilak	2	astr-oste.	18:00	12

S T O P
LIBURUDENDA
 TESTU LIBURUAK
 AUKERA ZABALA LIBURUTAN
 (Ingelesez, frantsesez,
 italieraz...)
 Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

Goiko
OPTIKA
 Eguzkitako betaurrekotan
 aukera zabala
 Arteta z/g - 20140 ANDOAIN
 ☎ 590955

HERRI AZPIGARATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Udal aurrekontuaren 0'6a emango dute

1998KO ANDOAINGO UDALEKO AURREKONTUTIK 6 MILIOI HERRI AZPIGARATUEN GARAPENERAKO LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTARIEI EMANGO ZAIE. NAHIZ ETA GUZTIRA BEDERATZI PROIEKTU AURKEZTU, ZAZPI IZANGO DIRA DIRULAGUNTZA HORIEK JASOKO DITUZTENAK.

Beharrea daudenel lagundu.



MARTIN UGALDEREN OMENALDIA

Omenaldiko bazkarira joan nahi dutenek izena eman dezakete.

Urriaren 31tik azaroaren 9ra bitartean izango dira Martin Ugalde andoaindarraren omenezko ekintza eta iharduerak. Omenaldiko egun nagusia azaroaren 9a izango da, eta, besteak beste, Udaletxean Udaltzako herriko Seme Kuttun izendatu ondoren Larramendi Bazkunak antolatutako Martinen omenezko bazkaria izango da, Bazkaria amaiturik, berriz, Larramendi Bazkuneko ohorezko lehendakari izendapena egingo diote.

Hori baina, bazkaria irekia izango da, eta dagoeneko herritar batzuek izena eman dute bazkari horretan parte hartzeko. Bazkaria Andoaingo Borda jaxketxean izango da, arratsaldeko ordu bietan hasita. Joan nahi duzuen herritarrok izena eman dezakezue dagoeneko Larramendi Bazkunera deituta. (300-733)

Malpaisilloko (Nikaragua) emakumeen garapenerako lan egingo duen *Mugarik Gabeko* erakundeak 550.000 pezeta jasoko du. Izan ere, emakume horien lan eta bizi baldintza kaxkarrak ikusita hasi zen Mugarik Gabe duela hamar urte emakume horien garapena bultzatzeko proiektuan lan egiten.

Ikasle sahararren heziketa landuko duen *Sabararren lagunak* elkarteak berriz, 1.060.000 pezeta.

«Indian osasuna denontzat» proiektua aurrera eramango duen *Medicus Mundi* elkarteak 1.105.000 pezetako dirulaguntza izango du. Diru kopuru horrekin oheak, osasun eta higiene produktuak erosi eta bertako biztanleak osasun hezkuntza jasoko dute.

Gipuzkoako Oskar Romero Solidaritza Batzordeak, El Mangonen (Salvador) edateko uraren proiektua martxan jartzeko 1.200.000 pezeta jasoko du.

Hirugarren Alundua eta Baka elkarteak, Chiapaseko 23 komunitateen osasun baldintzak hobetzeko 600.000 pezetako dirulaguntza jasoko du. Errepublika dominikarrean lan egoitza bat ezartzeko *Proyde-Proegak* 1.200.000 pezetako dirulaguntza izango du.

Azkenik, *Zainketa Paliatiboen Euskal elkarteak*, Quitoko (Ecuador) ABEI fundazioko ospitalean ekipo elektrogenoa ezartzeko 300.000 pezeta jasoko du. Izan ere, gaixo horien bizi kalitatea hobetzea du elkarte horrek helburu.

Ongizate Batzordeko lehendakaria den Elena Arribillagaren esanetan, Udalak aurrekontuaren 0'7ra emateko saiakeretan dabilta. Horrezaz gain, Andoaingo herritarrek beren dirua zertan eta nola gastatzen den ezagutzeko, gabonetan proiektu horien lana bertatik ezagutzeko azoka bat egiteko asmotan dabilta. Bestalde, elkarte ez gubernamentariek eskerrak eman zizkieten Udalari jaso duten dirulaguntzak zirela eta.

ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea

☎ 59 08 14

Fax-a: 59 24 03

ANDOAIN

winterthur

ERRETERIA
GOROSTIDI
BURDINDEGIA

SUKALDERAKO TRESNERIA

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

Minikost

LIBURUDENDA
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

**KABELA BASERRIA
BOTA EGIN DUTE**

Asteasuko plazaren albo batean urtetan zatik irain duen Kabela baserria bota egin dute. Etxebizitza berriak egiteko bota dute zabarra, zabarraren lekuan berria jartzeko. Hala ere, eta etxe berriak egitea gauza ona izan arren, ziur asteasuar batek baino gehiagok faltan botatzen duela Kabela baserria, herriko baserri zahar eta maitatuenetako bat, esan dijugenez.



KOTXEEN

ZIRKULAZIOAN ALDAKETAK

Munduko Txirrindulari Txapelketa dela eta, 1997ko urriaren 6tik 12ra bitartean kotxeen ohiko zirkulazioak aldaketak izango ditu Donostia-Irura norabidean, eta ondorioz, Asteasun. Urriaren 6an eta 9an izango dira aldaketa gehien, eta herritarrei garraio publikoak erabiltzea gomendatzen die udalak erretentzio handiak espero baitira. Aipatutako egunetan Tolosara Alkizatik joatea eta Donostiara Aian barrena joatea aholkatzen du udalak.

Informazio gehiagorako deitu 428400 telefonora (Trafiko Lurralde Zerbitzura).

IKASTAROAK LIZARDI ETXEAN

Ikastaro eta ekintza ugari antolatuko dute Lizardi egoitza sozialean hasi berri den ikasturterako. Helduentzat eskulan eta gakorratz ikastaroa emango da aurtin. Astean behin izango da lehenengoa, eta behin edo bitan berriz, parte hartzaileen nahiaren arabera, bigarrena. Hilero 400 edo 600 pezeta ordaindu beharko ditu gakorratz edota eskulan ikastaroa egin nahi duenak. Horrez gain, areto dantzak ikasteko aukera izango da larunbatetan. Hiru hilabetezko ikastaroa izango da eta 1.500 pezeta ordaindu beharko dira ikastaroa egiteko.

Haurrei zuzenduriko ekintzak ere antolatu nahi dira aurtengo ikasturterako. Oraindik zehazteke dagoen arren,

eskulanak, judoa, pilota eta antzeko ekintza gehiago eskaini nahi dituzte.

Haurrei baino beren gurasoei zuzenduta hitzaldi sorta bat eskainiko dute ikasturtean zehar haurraren heziketaren inguruan.

Bestalde, emakumeentzat hitzaldia izango da urrian, bularretako minbi-ziari buruz emango dutena.

**EGOITZA SOZIALEKO
BATZORDEA**

Egoitzaren antolakuntzaz eta funtzionamenduaz arduratuko den batzordea sortzekotan dabilta. Beraz, zeregin horretarako animoa duzuenok badakizue nora jo.

Izena emateko deitu 69 39 30 telefonora (Ainhoa).

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

VAC VAC **HOL-ATZ**  

VACSOL - WR® TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA


ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22
Telefona 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN



Amaia Agirre

«AMABILA» EUSKARA TALDEA

Billabona eta Amasa mailan bersortu den euskara taldea da «Amabila». Bersortu diot eta ez sortu, lehenago ere Amabila taldea egon bazegoelako baina oraingo honetan barne funtzionamendua eta proiektuen gauzatzea indar handiagoz burutu nahi dira, euskararekin zerikusia duen oro ekintzen bidez ezagutarazi eta justifikatu. Euskararen normalkuntzaren aldeko pausuak ematea da «Amabila» euskara taldearen erronka, besteak beste. Batetik, euskaraz jakin eta gaitelantiaz mintzatzei diren horiengana iristea da talde honen helburua, euskaldun zerbaitek egiten baldin bagaitu, hori, euskara dela sinistaraziz, eta bestetik, oraindik ere euskara ikasteko erabakia hartu ez dutenei gure hizkuntzarenganako errespetu nahiz begirunca izateko bideak ikus-taraztea.

Oraindik ere indar txikia du «Amabila»k, izan ere, duela hiru hilabete eskas hasi baitzen indar berritzen baina ~~hala~~ ere zenbait ekintza aurrera eraman ahal izan ditu epe labur honetan, hala nola, Billabonako jaietan aterateko pegatimak, euskararen aldeko pankartak, euskararen inguruko antzerkia... Jendeak «Amabila»ren berri eta bere asmoen ezagutza izan dezan egin ziren gisa honetako ahaleginak, euskararen normalkuntzaren alde lan egiteko prest dagoen talde bat badagoela aldarrikatu, nolabait.

Aipatu ekintzez gain, bada azkenik gauzatu ~~gabe~~ geratu zen beste proiektu bat ere, hots, Billabonako udalarekin hitzartu nahi zen asmoa. Kontua da billabonatar guztien artean, etxez etxe, udalarekiko harremanak zein hizkuntzetan mantendu nahi zituzten zioen galdeketa baf egin zela. Herreritar askok euskara hutsean eskatzen zituzten eta horiei jaietako egitaraua euskaraz bidaltzeko proposamena luzatu zion «Amabila»k Udalari, baiña azkenean, aitzakiak-aitzaki, ez zen herritarren eskaera eta nahia aintzat hartu.

Besterik gabe, eta «Amabila» euskara taldearen inguruko informazio hau baliagarri izango zaiolakoan irakurleari, «Amabila»k atek zabalik dituela esatea besterik ez zait geratzen, bertako partaide izan nahiez gero.

BILLABONAKO EUSKALTEGIA DENDARIAK EUS- KALDUNTZEN

Billabonako euskaltegiak euskara merkatal mundura kanpainari jarraituz azkenengo urteotan bezala aurten ere gogor ekingo dio berau egia bihur dadin.

Urte batzuk daramatzagu kanpaina honetan parte hartzen. 94-95 ikasturtean talde bat izan bagenuen ere, 96-97 ikasturtean bi talderekin lan egin dugu.

Kanpaina honen helbururik garrantzitsuenak denda eta merkatal guneetan euskararen presentzia haunditzea, enplegatuen euskara maila hobetzea eta barne nahiz kanpo harremanetan euskararen erabilera sustatzea dira.



Eskaintza egin ondoren 14 dendari izan ditugu bi taldetan banatuta. Horrela, talde hauen helburu garrantzitsuenak denda soma zitzaketan beharrei erantzutea zen. Hori kontuan hartuz taldean eman beharrekoa nola eman aztertzen hasi ginen eta esan genezake erabilitako materiale guztia beraiei egokitua izan dela.

Gainera, beraiek esanda dakigu euskaltegian ikasitakoa praktikan jarri dutela, txekak, fakturak eta abar euskaraz eginez.

Dendariak gustora aritu dira sistema honetan, aurtengo ikasturtean berriro ekiteko asmoa dute. Gure aldetik, aurten ere gogoz helduko diogu iazkoari eutsi eta herriko establezimenduetan euskararen presentzia nabari dadin.

Honen inguruan informazio gehiago jasotzeko deitu 692536 telefonora.

Eduardo Laborde errugabe

Ejercitoari laguntza ez eskaintzeagatik urte beteko inhabilitazioa eta 240.000 pezetako isuna jarri zion Epaitegi Penalak zigor gisa Billabonako alkate izan den Eduardo Laborderi. Hau da, 1997. urtean jaiotako mutilen zerrenda erreklutazio zentruari ez emateagatik izan zen zigortua alkate ohia. Baina Eduardo Laborderen defentsak epai horren aurka errekurtsioa aurkeztu zuen. Gauzak horrela, Entzutegi Prohibitzialak aurreko epaia baliogabetzat jotzen du, eta ministeritza fiskalak egotzen zizkion delitu guztietatik libre uzten du alkate ohia. Gainera, erabaki honen aurka errekurtsorik ezin da aurkeztu.

**UDALAK ARGIBIDE
ERREKURTSOA
AURKEZTU DU**

**ESKULTURA
PASEOA
EDERTZEKO**

N-1 errepidea izandakoa pasealeku dotorea da egun. Herritar ugari ibiltzen da alde batetik bestera paseatzen eta deskantsatzeko aulkiak egoteaz gain, eskultura bat jarriko dute gutxian pasealekua edertzeko. Nahi duen edonork aurkez dezake eskultura egiteko proposamena, baina gai jakin baten ingurukoa izan behar du. Eskultura txirringidulari buruzko irudia edota irudi multzoa izan beharko du. Egileak nahi duen teknika eta materiala erabili ahal izango du eskultura egiteko, baina hori bai, aire librean jarriko direnez baldintza horretan iraungo dutenak izan beharko dute.

SARIAK

3 milioiko sari bat eskainiko da eta 150.000 pezetako bi akzesit emango dira. Saria jasotzen duenak, ondorioz, beregain hartu beharko ditu eskultura egiteko nahiz eskultura jartzeko gastuak.

EPEAK


Eskulturak egiteko proposamenak urriaren 17rako aurkeztu behar dira. Behin eskultura aukeratu eta egin ondoren udalaren esku geldituko da bere jabetza, eta ondorioz, bere erabilera.

Hiru langile finkoen kontratazioa indarrik gabe uzten zuen Justizia Epaitegi Gorenaren epaiaren aurrean, Billabonako Udalak argibide errekurtsoa aurkeztu du. Izan ere, duela pare bat urte behin-betiko kontratazioa egin zieten hiru udal langileei, baina udalak berak, kontratazioak egin eta hilabete batzuetara atzera hota zuen bere erabakia kontratazio horiek legezkoak ez zirelako. Beraz, langileen batzordeak udalari jarritako kontentzioso administratiboak kontratuak atzera botatzeko epaia eman aurretik hartu zuen udalak kontratuak eteteko erabakia. Udalak Justizia Epaitegi Gorenari jarritako argibide errekurtsuan erabaki hori hartu zuela gogorarazten dio, eta horren berri ematen zuen idatzia bidali ziola ere adierazten dio. Ondorioz, uste du prozesu horrekin jarraitzeak ez duela zentzurik. Era berean, Epaitegi Penalari aktuzioak artxibatzeke eskatzen dio Udalak.

BIDE PENALA

Izan ere, Herri Batasunak bide penaletik ekin zuen udalaren aurka behin-betiko kontratazio horiek zirela eta. Bide penale

etik udalari etordakizkiokeen ondorioak erabakitzeke daude.



Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER
LOTUS
TISSOT
SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

M Talleres
Mendi S. L.

Burdinezko piezen egintza,
planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.

Urnietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

U · P · A · I

Kale Nagusia, 32
VILLABONA
☎ 692521

P · U · B

AE LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

MARIA ANGELES LAZKANO ALKATE



Alkartetxea eta batzokiaren erreketak salatze-ko ekimenak

Zizurkilgo jaietan EA eta EAJ-PNVren egoitzak erre zituzten ezezagun batzuk. Horren ondorioz, erasoak gaitzesteko Udalak aparteko batzarraldia egin zuen. Erasoak gaitzesteko manifestazio bat egitea, HBko zinegotziek ekintza horiek kondena ditzatela exigitzea eta herritarrek ekintza horien arduradunak zeintzuk diren argitzen lagundu dezatela eskatzea izan ziren hartutako erabaki batzuk. Zizurkilgo Udaleko EAJ-PNV, EA eta PSE-EE alderdiek, aurreko erabakien alde bozkatu zuten alderdiek, HB egiten zuten erasoan arduradun politikoa.

HBk deituriko manifestazioa

HBk aparteko batzarraldian adierazi zuenez, Herri Batasuna ez da eroriko gaitzespen faltsuetan. Gainera, HB kriminalizatzeo saiakerak salatu eta Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontzeko herri eztabaida irekiatzea proposatzen zuen. Horrezaz gain, hilaren 20an HBk "Askatasuna eta bakea. Eman hitza herriari" lemapean manifestazioa egin zuen Billabona eta Zizurkilen.

Baserri bideak

Agerrealde, Errotamendi, Saldugoiena eta hilerri inguruko baserri bideak konpontzeko lanak berehala hasiko dira, jada hasi ez badira. Bideen inguruak garbitu, errepidean dauden zuloak estali, eta ondoren, asfaltatu egingo dituzte bide guztiak. Udalak 6 milioi pezeta inguru gastatuko du konponketa lan horiek egiten.

Orain artean PNV-EAJko zinegotzi izan den Maria Angeles Lazcano da zizurkildarren alkate berria. Tentsio uneak izan ziren udalbatzan aukeratu zuten alkate, EAKo eta PSE-EEko zinegotziek, azken gertaerak direla eta, alkate izateko aukerari uko egin eta gero. Ondorioz, HBko Xabier Pellejero eta egun alkate denaren artean erabaki zuten zinegotziek, eta Maria Angeles Lazkanok jaso zuen boturik gehien: hamaika botuatik zazpi. Beraz, duela bi urte egin zen moduan hirukoa elkartu egin zen beren hautagaia aurkeztu eta aukeratzeko.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Maria Angeles alkate aukeratu eta berehala udalbatzarrean zegoen jendea eta EAJ-PNVeko zenbait buruzagi txaloka hasi ziren, leku berean zeuden beste batzuk txistuka hasi ziren hirukoa osatzen duten alderdiko zinegotzietan lapurrak deitzen zieten bitartean. Alkate aukeratu berriak udalbatza bertan behera utzi zuen, eta ez zion HBko Pellejero zinegotziari agiri bat ira-

kurtzeko baimenik eman gai ordenean ez zelako horrelakorik adierazten.

Alkate berriarekin bildu gara eskuartean dituen asmoen berri jakiteko. Azken egunotan izan diren gertaerataz ez du asko hitz egin nahi izan, esan beharrekoak esanda daudela uste du eta orain lanean hasteko harremanak normalizatzea baino ez du nahi.

Zer moduzko esperientzia du alkatetza bonen basiera?

Ongi dago. Gauzak etorri dira bere onera, eta orain, lanari heldu behar diogu. Oraingo postua ardura gehiagokoa da baina lehenago ere udaltxean aritutakoa naizenez badakit hemengo lanaren berri.

Zin proiekturi helduko diozue berehala?

San Millan eskolako lanak gutxian hasiko dira, eta babes ofizialeko etxebizitzak egiten urte bukaeran hastea espero dugu. Eguneko egoitza, kirolaren eta aisiaren gunea... etorkizuneko proiektuak dira. Paseatzeko bideak eta lekuak ere jarri nahi ditugu.

P.M. Otañoko parkea

P.M. Otaño eskolako parkean berrikuntzak egingo dituzte. Haurrek minik ez hartzeko gomazko zorua jarriko dute lurrean, eta jolasean ibiltzeko parkea txukundu egingo dute.

Zebra-bide berriak

Ubare auzoan zebra-bide berriak jarri dituzte. Zebra-bide horiek badute berezitasun bat: zebra-bide mokordunak dira. Auzoan ibiltzen diren kotxeek beren abiadura jaitsi egin beharko dute ondorioz.

ARTZAINZA, GAZTEEN ERRELEBOAREN ZAIN

Pello Etxeberria: "Hemendik hamar bat urtetara somatuko dugu artzainen falta"



Pello Ikuluko ahartekin

PELLO ETXEBERRIA GAZTEAK EGUNEROKO OGIA NONBAITETIK LORTU BEHAR ZUELAKO ERABAKI ZUEN ARTZAIN IZATEA. DUELA 5 URTE HARTU ZUEN ERABAKI HORI, BEHARRAGATIK, BAINA AITORTU DIGUNEZ, ARDIAK ZAINZEA GUSTUKOA IZAN DU BETI. ALUSTIZA BASERRIAN TOPATU DUGU PELLO, BASERRIKO LANAK EGITEN ETA ARDIEK NEGUAN BEHAR DUTEN BELLARRA MOZTEN.

Pelloc hogeita hamabi urte ditu eta nekazaturismoa den Alustiza baserrian bizi da, Amasan. Azaroan jaitsiko ditu here 400 ardiak (tartean 11 ahari eta 80 bildots) menditik, eta esan digunez, orduan hasiko da lan gogorra: "San Fermín inguruan igotzen ditut ardiak mendira, Loatzo eta Uzturre ingurura. Mendian dauden bitartean ez dute lan askorik ematen, piska bat zaindu behar badira ere. Neguan da gogotik lan egiten dugun garaia". Neguan, egunean, 18 orduz egiten du lan Pellok: "Ardiak umealdian jarri, arkumeak jaio eta esnea jezteko garaia izaten da. Umealdi bakarra edukitzen dute nire ardiek, esne gutxiago eman arren, nahiago baitut ardiak gehiegi ez behartzea, eta ondorioz, bi umealdi baino bakarra edukitzea". Eginiko inbertsioei aurre egiteko eta irabaziak ateratzeko egiten du hainbeste lan. "Ofizio honetan, gaur egun, inbertsioak egin behar di-

ra aurrera egiteko. Izan ere, kalitate oneko produktuak eta Komunitate Europearrak ezartzen dituen baldintzak bete behar dira esnea eta produktuak saltzeko". Beraz, lehenik eta behin inbertitu egin behar da gero irabaziak ateratzeko, "jornal bat irabazteko adina, gehienera jota", zehaztu digu artzainak. Ardiak edukitzeko 750 m²ko ikuilu handi bat egitea izan da bere inbertsioa. Hurrengo ardiak jezteko zulo antzeko batzuk egitea izango da, "tailer mekanikoetan dituzten antzekoa", ardiei esnea osasun eta garbitasun baldintza guztiak betetzeko.

Pelloc baserrian jarri duten nekazaturismoan batik bat saltzen ditu ardi esnearekin eginiko produktuak. Produktuak egiteko erabiltzen ez duen esnea berriz, saldu egiten du. "Egun, esnea produzituz bakarrik ez da nahikoa irabazten, ardi esnez eginiko elikagaiak saltzea beharrezkoa da", adierazi digu

artzainak. Goierrri aldean gazta asko produzitzen da, eta beraz, nahikoa kompetentzia handia dago merkatuan. Gainera, kooperatibak eta antzekoak sortu dira, eta mugaz bestaldetik ardi esnea ekartzen dutela esan digu: "Horrelako merkatu batean mugitzeko, beraz, beharrezkoa da inbertsio handiak egitea eta kalitatezko produktuak saltzea".

Jende gaztea artzain izatera ez da animatzen. Gauzak horrela, batzaz beste, 50 urte dituzte egungo artzainek. Hemendik hamar urte ingurura artzain gutxi gelditu direla dio Pellok, orduan somatuko dela artzainen falta.

Bizimodu gogorra baino egungoaren ezberdina dela dio Pellok: "Ez dago asteburu, testa edota antzekorik. Egutero egin behar da lan. Hala ere, neguko sei hilabeteak dira gogorrenak, beste sciak, udarakoak, nahiko lasaiak dira".

**OFIZIOAZ
GAIN, BIZITZEKO
ERA BAT DA
ARTZAIN IZATEA**

**KONPETENTZIA
HANDIA DAGO
PRODUKZIO
MOTA HONETAN**

BETERRI-AIZTONDOKO ZINEMALDIA

Billabonako Gurea da eskualdeko zinemareto bakarra



PALOMITAK ETA GOXOKIAK HARTU ETA HERRITAR UGARI JOATEN DIRA ASTEBURUAN GUREA ZINEMARETORA PELIKULAK IKUSTERRA. ARRATSALDEA EDOTA ILUNTZEA PASATZEKO MODU BAT DA ZINEMARA JOATEA. IZAN ERE, ETA HERRI TXIKIETAN BATEZ ERE, EZ DAGO AISIALDIRAKO ESKAINTZA ASKORIK, ETA ZINEMA TABERNAZ TABERNA IBILTZEAREN ALTERNATIBA IZAN DAITEKE. NAHIZ ETA GERO, FILMEA BUKATUTAKOAN, KAFETXO BAT HARTZERA TABERNARA JOAN. BAINA HORI BESTE KONTU BAT DA.

Zinema aretoan ikusten dugun filmea ikusi ahal izateko gestioak egiten aritzen da Uxue Urbietta debatarra. Berak lan egiten duen Urbietta enpresak zuzentzen du Billabonako Gurea zinemaretoako pelikulen programazioa eta aretoaren antolakuntza. Beraz, Euskal Herrian filmeak banatzen dituen Bilboko distribuidoran nahikoa negoziaketa egin behar izaten du ahalik eta pelikulik interesgarrienak lehenbailehen alokatzeko: "Pelikulak denbora batean alokatzen dira, hau da, pelikula denboraldi baterako

emititzeko eskubideak alokatzen dira. Eta noski, pelikula interesgarriak alokatzeko diru kopuru handiagoa eskaini behar da". Filmeak hiriburuetan botatzen dira estreinekoz, eta gero, lau bat astetara edo, Billabonan ikusteko moduan da filme hori Urbietta enpresaren gestioei esker. Aipatzekoa da Gurea zine-

maretoa ez dutela filmeak botatzeko soilik erabiltzen. Billabonako Udalak herrian antolatzen diren ekintza gehiagorako (antzerkiak, hitzaldiak e.a.) erabil dezake aretoa.

ZERBITZU BAT GEHIAGO HERRIAN

Uxue gustura dago Gurea zinemaretoaren funtziona-

mentuarekin. Astean lau egunetan irekitzen ditu bere ateak Gureak, ostiraletik astelehena bitartean, eta nahikoa herritar joaten dira egun horietan zehar. "Ireki berritan *boom* bat izan zen, jende asko joaten zen zinemara. Hiru urte dira Gurea ireki zela, eta pare bat urte pasa beharko dira aretoaren funtzionamendua finkatzeko eta sendotzeko", adierazi digu Uxuek. Ikuslearen perfilari dagokionez berriz, ikusle goa filmeak egiten duela esan digu, hau da, ez dagoela ikusle goa mota jakin bat "pelikula jakin bat ikustera jende jakin bat joaten da". Igandetan, arratsaldetan, haurrentza-

Pelikula emititzeko
Dress



ko filme bereziak botatzen dituzte urteko hilabete batzuetan zehar.

Zinema herriko zerbitzu bat gehiago dela uste du Uxuek, herrietako aisialdia osatzeko beste aukera bat. Baina hiriburuetak zinemaretoek nola zentru komertzial handietan jarriko dituzten zinemek konpetentzia handia izango dira herrietako zinema txikientzat, "aukera gehiago eskaintzen baitute".

**FILME GUTXI
EUSKARAZ**

Euskaraz filme gutxi jartzen dituzte Gurean. Baina ez hemen bakarrik, Euskal Herriko zinemareto guztietan ez da kasik euskarazko filmerik eskaintzen: "Saiatzen gara euskarazko filmeak eskaintzen, egiten diren guztiak eskaintzen ditugu. Arazoa da, ordea, filmeak euskarara ez direla bikoizten". Izan ere, filme euskaldunek ez dute ikuslego kopuru altua, eta ondorioz, produktore eta banatzaileei ez zaie filme euskaldunekin negoziotak

egitea interesatzen, "instituzioetatik etorri

**FILMEAK EZ DIRA
EUSKARARA
BIKOIZTEN, HORI DA
ARAZOA**

behar du euskarazko filmeentzako laguntza". Filme euskaldunei bultzada emateko ikuslego gaztea euskarazko filmeak ikustera ohitu behar dela uste du Uxuek.

**PANTAILAREN
ATZEKO LANA**

Gureara sartzeko, filme bat ikustera behinik behin, Beleni 550 pezeta ordaindu behar dizkiogu. Pelikula hasi aurretik irekitzen du sarrerak saltzeko bulegoa, eta ordu bete inguru egoten da. Gero, behin filmea bukatu ondoren, aretoa garbitzen du: "Egia esan, jendea nahikoa zikina da, arratsaldeko saiora etortzen direnak behinik behin". Zinemaretoaren goi partean *gamberroenak* esertzen direla esan digu Belenek, eta pelikulak ikustera, astebururo, 250 pertsona inguru etortzen direla. Belenek diruaren truke eman digun sarrera, berehala, Isabelek puskatu egingo digu. Izan ere, be-

rak irekitzen ditu Gureako ateak eta esaten digu non eseri. Azkenik, Gurean lan egiten duen hirugarren langilea Joxi da.

**FAMILIATIK
DATORREN
ZALETASUNA**

Familiatik datorkio zinemari lan egiteko zaleatasuna eta jakituria Joxiri. Bere aitak garai bateko Gurea zinemari lan egiten zuen lan, aita eta anaierangandik ikasi ditu Joxik pelikula bat emititzeko jakin beharreko guztiak. Pelikulak emititzen diren egunetan lan egiteaz gain, ostegunetan egiten du lan Joxik: "Pelikula sei-zazpi puska ezberdinetan (roilotan) banatuta etortzen da, eta nik hori guztia roilo batetara pasa behar dut. Hori da nire la-

nak duen gauzarik gogor edota arduratsuen". Izan ere, roilo ezberdin guztietako pelikularen zatiak batura bestearen atzetik jarri behar dira, hurrenez hurren, eta pelikulak tartean dituen akatsak zuzendu egin behar dira. Behin pelikula montatu ondoren emititzeko makinari jarri eta argia eman besterik ez da egin behar, "gauzak behar bezala doazela ziurtatzeko begiradaxo bat bota noizean behin eta kitto". Oso garrantzitsua da, beraz, ahalik eta kalitate gehien duten pelikulak alokatzea: "Muntai gutxi jasan dituen pelikula roiloak alokatzea da egokiena pelikularen kalitate ona ziurtatzeko. Izan ere, zinemareto bakoitzeko langileon esku dago pelikulak montatzea eta batzuetan ez dituzte oso ongi montatzen". Hala ere, hau zaila izaten da batzuetan, pelikula bakoitzaren kopiak mugatuak baitira. Beraz, hiriburuetan, pelikulak estreinatuta eta berehala eskaintzen dituzten lekuetan, jartzen dituzte kalitate altuko pelikulak ikusgai. Joxik ostiralero ikusten du asteburuan botatzen duten pelikula, "ondo montatuta ote dagoen ikusteko". Ostegunetan montatu duen pelikula astelehenean desmonatu egin behar du, berriro zati bakoitza bere roilotan sartu eta beste areto batetara bidaltzeko.

IÑAKI EIZMENDI

Goenkale teleasaileko zuzendaria



ANDOAINARRA IZATEZ. MUSIKARIA AFIZIOZ, BAINA KOMUNIKAZIOAREN MUNDUAN ARI DA LANEAN. PAUSOKA PRODUKTORAKO BAZKIDEA ETA GOENKALEKO ZUZENDARIA DA. HAMAIKA GAUZA EZBERDIN EGITEKO DENBORA IZATEN DU, NAHIZ ETA LANEAN EMATEN DITUEN EGUNEKO ORDU GEHIENAK. LIBURUAK IRAKURRI, MUSIKA KONPOSATU EDOTA INGELESA IKASTEKO ASTIA ERE IZATEN DU. BERE AMETS BAT BERRIZ, FILME BAT EGITEA DA. IZAN ERE, IÑAKI EIZMENDIK EGITEN DUENAK EKA-RIKO DU ZER ESAN ETA ZER IKUSIA.

Afizioa eta ofizio asko dituen gizona zara. Nola definituko zenuke zure burua?

Zaila da norberak bere burua definitzea. Nire lanbidean, komunikabideen eta bereziki telebistaren mundua oso aldakorra dela kontutan hartuz, beti erne egon behar izaten dut. Komunikabide berrien ibilbidea ezagutu, besteek egiten dutena aztertuta, ikertuta... Beraz, lan asko egin behar izaten dut, nahiz eta gustuko lana izan. Bestalde, nire eginbe-

har eta buruan ditudan ametsen artean oreka puntu hori lortzen saiatzen naiz.

Zure haurtzaroa edota gaztaroa bizimoduak eraginik izan al du egungo bizimodua edota lanbidean?

Bai, nahiz eta hori beranduago jakin dudana. Nire haurtzaroa bizia izan zen. Ikasketak eta jolas giroko oroitzenak oso

gogoan ditut. Garai hartan elizak zuen garrantzia da azpimarragarria. Eliza eta bere inguruan antolatzen ziren festak herritarren bi-

zitzaren ardatza ziren. Andoainean genituen bi zinemaretoetan piztu zitzaidan zinemarako dudana grina. Ez dakit zergatik, baina txikitatik garbi nuen zer egin nahi nuen. Komunikazioarekin lotura zuen zerbaitean jardun nahi nuen eta horretan dihardut. Nire aita kontalari ona izateak eragingo zuen ziurrenik.

Telebistan lan egin aurretik musikaria izan zara.

Bai. Oso gazte hasi nintzen abesten. Musikarako dohai berezi bat izan dut eta zenbait urtetan abesten ibili nintzen alde batetik bestera. I liru diska kaleratu ni-

tuen eta orain ez kantatu arren, musika konposatzen jarraitzen dut. ETB sortu zenean telebistan hasi nintzen lanean eta K-2000 produktoran ere aritu nintzen. Orain Pausokako bazkide naiz eta Goenkaleen ari naiz lanean. Nahiz eta nire lanbidea komunikazioaren mundukoa izan, inoiz ez dut musika albo batetara utzi.

Zein musika mota egiten zenuen?

Nire lehen diska nahikoa arrakastatsua izan zen. Diska kaleratu baino lehenago nire kantak kalean asko entzun ziren, eta beraz, oso

“TXIKITATIK GARBI NUEN ZER EGIN NAHI NUEN”



harrera ona izan zuen. Hurrengo bi diskak asko landu arren, laboratorioko produktuak izan ziren. Ez zuten lehendabizikoaren kale kutsu hori, eta ondorioz, ez zuten arrakasta handirik izan. Abestien letrari dagokionez berriz, nahiko atipikoa izan nintzen. Bertako musikari doinu berriak sartzeaz gain, nire bilakaera pertsonalaren kutsua zuten abestiak idatzi nituen.

Zertan datza zure egungo lanak?

Lehen esan bezala, komunikazioaren mundu zabal horretan egiten dut lan. Telebistarako programak egiteaz gain, irudiaren munduarekin lotura duen gauza ugari egiten dugu, horien artean enpresentzako irudi azterketak egiten ditugu. Goenkaleko zuzendari gisa, egiten dugun produktua kontrolatzean datza nire lanak.

Zergatik izan du Goenkalek izan duen arrakasta?

Formula hori ezagutuko bagenu, gainerako seriei ere formula hori aplikatuko ge-

nieke guztiek arrakasta bera izan zezaten. Nire ustez, momentu jakin batean jendeak nahi zuen hori ematen jakin genuelako izan du hainbesteko arrakasta Goenkalek. Izan ere, amerikarrek dioten bezala, momentu egokian produktu egokia ematen jakin dugulako izan du arrakasta.

Zer adierazi nahi izan duzue Goenkalen?

Goenkalen heredentziaren arazoa planteatu genuen hasiera batean eta gure izararen muina hori zenez,

beldur ginen jendearen harreraz. Gai hori famili giroan kontatu izanak, ikuslegoko pertsona guztiek identifikatzen diren pertsonaia bat izateak eta arazoak sentsibilitatez kontatu izanak ekarri du arrakasta. Azken batean gizartearen isla da telesaila, nahiz eta gai politikorik ez ukitu. Gainera, jendeak ez du hori ikusi nahi, izan ere, horretarako baditu beste programa batzuk. Jendeak nahi duen hori kontatzean datza Goenkaleren arrakasta.

Noiz arte iraungo du Goenkalek?

Inoiz ez da hori jakiten.

Jendeak istorioa atsegin duen bitartean Goenkalek aurrera jarraituko du. Saioa aurrera ateratzeko lagun asko ari gara lanean. Egune-ro, goizero, saio bat grabatzen dugu, eta arratsaldetan egitura arazoak konponatzen jarduten dugu. Istorioaren nondik norakoa eta hariari jarraipena ematen asmatzen nahikoa lana izaten dute gidoilariak. Hala ere, ikusleagoak esango du noiz bukatuko den Goenkale. Audientzia jaisten denean, istorioak interesik pizten ez duenean bukatuko da Goenkale.

Etorkizunerako zein proiektu dituzu?

Oraingoz Goenkalek iraun dezan ari gara lanean. Gainerakoan, beste telesail eta programa ezberdinak prestatzen ari gara. Telebistaren mundua aldakorra da oso eta beraz, industria honetan jarraitu ahal izateko erne ibili behar dugu. Inork ez daki zein telebista mota egingo den hemendik urte batzuetara, beraz, eta sorpresarik ez izateko, berrikuntzen aurrean beti erne, adi egon behar dugu. Mundu honetan jarraitzea da nire asmoa.

MIGUEL ANGEL PEREZ LASA, 1. MAILAKO ARBITROA

29 URTEKO ANDOAINDAR GAZTE HAU FUTBOLEKO 1. MAILAKO ARBITRO BERRIA DUGU. HAMALAU URTE ARBITRATZEN PASA ONDOREN, BERE AMETSETAKO BAT EGI BIHURTU DA, 1. MAILAKO ARBITROA IZATEA, ALEGIA. ARBITRATZEAZ GAIN, SETALDE HORNIKETA ELEKTRIKOAK EGITEN DITUEN ENPRESAKO AGENTE KOMERTZIAL GISA EGITEN DU LAN AS-TEAN ZE HAR.

Noiz eta nolatan hasi zinen arbitro lanak egiten?

Andoainen ODEA elkartearen egin nituen arbitro lanaren lehenengo pausuak: Gazteak entrenatu, futbol sala arbitratu ...

Hamabost urterekin arbitro eskolan hasi eta hamalau urtez beste mailetan arbitratu ondoren, orain, lehen mailako arbitroa izatera iritsi naiz.

Inoiz pentsatu al zenuen 1. mailako arbitro izatera iritsiko zinenik?

Hasieran, hobby gisa hasi nintzen arbitratzen. Piskanaka-piskanaka, partiduak arbitratzerakoan lorturiko puntuazioarekin eta erregelamentua ikasten nahiz azterketak gaudituz joan ondoren, 1. mailako arbitro izatea posible zela konturatu nintzen. Konstantea izateaz gain, zortea ere garrantzitsua da hori lortzeko. Orain, 1. mailako arbitroa izan naitekeela demostratu beharra dago. Izan ere, ez dakit zenbat denbora pasako dudan maila horretan.

Zein ezaugarri behar ditu arbitro on batek?

Ezaugarri fisikoaz gain, federazioko barne erregelamentua ondo ezagutu behar da. Horrezaz gain, dedikazioa, gogoia eta gustukoa izatea ere garrantzitsu dira.



Jokalariak baino gehiago korri egin behar duzu. Arbitro lanetan gabiltzanok ez dugu soldatarengatik aukeratu arbitro izateko. Izan ere, beste lanen bat beharrezkoa da bizimodua ateratzeko. Hamabostetik behin arbitratzen dugu, beraz, astean zehar beselako lana egin behar dugu.

Zein dira arbitroa izatearen alde onak eta txarrak?

Alde txarrak baino onak gehiago dira. Kirola egiteaz gain, toki eta jende asko ezagutzen duzu, diru piskat irabazi, eta adibidez, Errealak etxean jokatzen duenean partidua doan ikusten dugu.

Alderdi txarra, irainak dira baina horiei ez diegu kasu egiten. Agresio fisikorik ez da izaten, nahiz eta jende aurrean horre-

lako kasuak sortzen duen morbo gehien.

Asteburuan arbitratu eta astelehenetan lanera joan behar dugu, beraz, sakrifikatzen jakin behar dugu. Eguneroko entrenatu behar dugu, asko zaindu gure burua.

Zein partidurekin debutatu duzu?

Udaran Real Madrid-Flamengo eta Deportivo-Palmeiras partiduak arbitratu ditut. 1. mailako Ligari dagokionez, Zaragoza-Oviedo partidua arbitratu dut.

Aldaketa handia al da 2. mailan edota 1. mailan arbitratzea?

Aldaketa ez da hain handia. Profesionalitatea nabaria da, ordea. Jokua azkarragoa da baina gainerakoan, gauzak ez dira asko aldatzen.

Zer eskatzen diozu ikusleagoari?

Orain arte bezala animatzen jarraitzeko. Gauzak nahi bezala irteten ez badira ere. Nik, arbitratzeko pertsonalitate propioa dut eta ahal dudan ondoren egitea espero dut.

“JOKALARIAK BAINO KORRI GEHIAGO EGIN BEHAR DUGU”

UR ETA LEHOR GARBIKETAK

Larra,
Marta,
Alfonsoak

Arrate kalea, 3 ☎ 59 39 79 ANDOAIN
(Arrate pilotalekuaren ondoan)

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47
ANDOAIN

MUNDUKO TXIRRINDULARITZA TXAPELKETAK

URRIAREN 7TIK 12RA BITARTEAN LASTERKETA UGARI IKUSTEKO AUKERA

Urriaren lehen egunetan Donostiara begira egongo dira mundu guztiko begiak. Izan ere, txirrindularitza proba garrantzitsu bat, Munduko Txapelketa alegia, ospatzeaz gain, Donostia eta Gipuzkoako herrietan nabarituko da kanpotar askoren bisita egun horietan. Hoteletako, tabernetako eta gainerako zerbitzuetako langileek ere lan ugari izango dute. Garrantzitsuena, ordea, Donostiara hurbilduko diren txirrindulari eta kazetari horien guztien etorrera izango da. Gauzak horrela, Betteri-Aiztondoko Andoain eta Billabona herrietatik ere pasako dira txirrindulariak lasterketan, beraz, izango da aukera proba horiek bertatik ikusteko. Txirrindularitzako proba horiek hasi aurretik, UCIko kontseiluak (Unión Ciclista Internacional), zuzendaritzak, argazkilariak, motozaleak eta telebistako hizlariak bilerak egingo dituzte, lan antolamenduan arazorik gerta ez dadin. Txirrindulariek erlojuaren aurkako entrenamenduak egingo dituzte lasterketan parte hartzeaz gain. Hona hemen lasterketa guztiak:

Proben egutegia

Urriak 7 Asteartea	13:00: Banakako erloju aurkako, junior emakumeak. *14:45: Banakako erloju aurkako, junior gizonak (Itzuli bat: 28 kilometro).
Urriak 8 Asteazkena	*11:00: Banakako erloju aurkako, eliteko emakumeak (Itzuli bat: 28 kilometro). *14:00: Banakako erloju aurkako, 23tik beherako gizonak (Itzuli bat: 32 kilometro).
Urriak 9 Osteguna	10:00etatik 12:30etara: Errepideko zirkuituan entrenamenduak. *13:30: Banakako erloju aurkako, elite gizonak (Itzuli bat: 42'6 kilometro).
Urriak 10 Ostirala	9:30: Errepidea, junior emakumeak. 13:00: Errepidea, junior gizonak.
Urriak 11 Larunbata	8:30: Errepidea, 23tik beherako gizonak. 14:00: Errepidea, elite emakumeak.
Urriak 12 Igandea	09:45: Errepidea, elite gizonak.

*Andoaindik pasako diren probak



Iaz eglniko Mundu Mailako txapelketa.

BETERRI-AIZTONDOKO ZIRKULAZIOAN ETENDURAK

Andoain eta Billabona herrietan barrena banakako erloju aurkako probak ikusi ahal izango ditugu. Egun horietan, gure herrietako errepideetako zirkulazioa eten egingo da. Gauzak horrela, kaltetuenak enpresak, partikularrak eta garraio publikoak izango dira.

Orietik Urnietarako bidean eta Andoaindik pasatzerakoan, Bazkardo eta Krafft lantokiak izango dira puntu garrantzitsuenak. Urriaren 8an, Sorabilla auzora arte, eta 9an, Billabona arte joango dira txirrindulariak.

Gauzak horrela, herri hauetako zirkulazioa eten egingo da.

Urriaren 6an, 9:30etatik 17:00etara.

Urriaren 7an, 12:45etatik 18:30etara.

Urriaren 8an, 8:30etatik 18:30etara.

Urriaren 9an, 11:30etatik 18:30etara.

Beraz, errepide alternatiboetan barrena ibili behar da egun horietan.

San Pedro jaiak 1972.



Ezkerretik eskuinera: Maria Pilar Legarra, Mertxe Izueta eta Modesta Usandizaga.

Asteasuko San Pedro jaietan itxura honekin irteten ziren herritarrak kalera. Baina, noski, ez egunero; mozerro egunean soilik. Izan ere, itxuraldatzeko eta mozerroak janitzeko eguna izaten zuten asteasuarrek jaietako egun batean. Egungo jaietan bada oraindik mozerrotzeko ohitura duen bat edo beste, baina jada ez dago lehen mozerrotzeko zegoen ohiturarik.

Argazkia, bertan ageri den Mertxe Izuetak utzi digu.

Oharra: Etxeko ganbaran edota zapata kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aiurri argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat atera eta zuen informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



ALBA

Pío Baroja, z/g behea, 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona


- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

**Hilero auto baten aseguru-
rua zozketatzen dugu!**

Beterriko

Liburuak

1997



Txalaparta

ARRAGOA

Egilea: Jon Urrujolegi Zegaman jaio zen 1940an. Seguran hazi eta gaur egun Donostian bizi da. Hamaika urte zituela Arantzazura joan zen eta hantxe aurkitu zuen euskaraz irakurri eta idazteko leku aproposa. ordura arte Segurako Eskolak ukatu ziona. Euskarako irakasle, artikulu askoren egile, liburu itzultzaile eta gaur egun administrazioan dihardu itzulpen lanetan.

Obra: Igantziren haurtzarotik hasi eta preso erori arteko kontakizuna da eleberria. Arantzazuko ikasketekin hasten da lehen atala eta, hortik aurrera, gaztaroa ardatz duela. Igantzik bizi izan zituen kinka eta gorabehera biziak kontatzen dizkigu: espetxearen garrastasuna, torturaren atzaparkadak, euskararen egoera tamalgarria, eta Pariseko amodio kontu bitxiak ahaztu gabe. Euskal Herriaren oinazeak eragiten dion sua barne-barnean daramanaren bizitza kontatzen du liburuaren zehar.

Egileak berak dio: "*neure bizitzako bizikizun askotan oinarritu naiz*". Bizikizun horiek, ordea, nobelatu egiten ditu, irakurleari interesa sortu nahirik.

Arragoa eleberria errealista al da? Zentzu batean bai. Gutxi gorabehera horrela gertatutako bizikizunak azaltzen ditu. Eleberrian azaltzen diren pertsonaiak lehenik ere ikusi edo irakurri ditugu bai prentsan bai beste eleberri, istorio eta ipuinetan ere. Arragoa honetan kontatzen den istorioaren antzekoak iada irakurri baititugu. Dena dela, egileak esaten duenean "*liburuaren edukia eta mezua gaur ere aplikatu daitezkeela*" gehiegi esatea dela uste dugu, orduko eta oraingo egoerak arras ezberdinak baitira.

Euskara egilearen obsesioa denez, antzematen da ahalegin handia egin duela ahalik eta euskararik literarioena plasmazten. Hikako erregistroa erabiltzen saiatu da. Seguran, umetan, erabiltzen zutena.

Ez da eleberri eleberria. Egileak zirkunstantzia, egoera, ideia zenbait hartu eta josi egin ditu eleberri bihurtuz. Etenak daude liburuaren harian, ETArekin mintegian bezala, non Euskal Herriaren historia, organizazioaren oinarri teorikoak eta bileran bildutakoek ikuspegi ezberdinak nahasten dituen.

Ez da izango agian gure literaturan erreferentzia izango den obra, baina erraz irakurtzen diren horietakoa, eta hartzen duen garaiko giroa nola plasmatu duen egileak ezagutu nahi duenak atseginez irakurriko du.



Hona hemen berriro gure lehiaketa. Asmatu behar duzuen txokoa ezaguna da oso. Norbaitek bertsoak ere atera dizkio zuhaitz horri. Nahiz eta orain fruiturik ez izan, garai batean zuhaitz eder eta emankorra izan zen. Zizurkilgo paraje polit batean aurkitzen da eta ondo begiratu gero, atzeko aldean aurkitzen den etxea eta plakak pista handia eman diezazuke. Beraz, animatu eta idatz ezazu!

Saria bikaina da oraingoan ere: **Billabonako Ogi-goxo okindegiak "etxeko produktuez osatutako sorta"** eskaini du oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

ogi berezi eta
artesanak
...
etxeko
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.
Ezkerretik 132 - Herriko plazan 1
41501 ASTIURI - T. 94292 0011/99

OGI • GOXO

• TARTAK • LITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

MUSIKA

BILLABONA

Irailak 26: Urbil eta Txomin Artolaren musika kantaldia. Gurea zinema aretoan, gaueko 22:30etan. Sarrera: 600 pezeta.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Irailak 28: "Amadeo y cia" taldearen haurrentzako antzezlan. Nafarroa plazako kioskoan, arratsaldeko 18:00etan.

BILLABONA

Urriak 2: Tanttaka taldearen "El florido pensil" antzezlan. (Euskaraz). Gurea zinema aretoan, 20:30etan. Sarrera: 700 pezeta.

Urriak 17: Zanguango taldearen "¿Y quien no?" antzezlan. (Erdaraz) Gurea zinema aretoan, gaueko 22:30etan. Sarrera: 600 pezeta.

ERAKUSKETA

BILLABONA

Urriaren 13tik 19ra: "Komikiak 100 urte" erakusketa. Gurea erakusgelan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Goizetan ikastetxetako taldeak.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Irailak 28: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Balankaleku eta Intxusburu mendietara irteera.

BILLABONA

Irailak 28: Aizkardi mendizale elkarteak antolatuta Urbasa, Urederra, Sierra de Lokiz eta Oioioienera irteera.

IKASTAROAK

BILLABONA

Urriaren 13tik 17ra: Sukaldaritza ikastaroa, Irrintzi elkarteak.

Oharra: Informazioa eta matrikulazioa Billabonako Kultur Etxean. Telefonoa: 691655. (Arratsaldez).

ADUNA

Dantza: Euskal dantzak ikasteko aukera. Astelehenean 17:00etatik 18:00etara.

Pilota: Larunbat goizetan.

Txistua: 6 urtetik gorako haurrentzako. Maila desberdinen arabera egingo dira taldeak.

Eskulanak: 15 urtetik beherakoentzako taldea egongo da. Helduen egutegia zehazteko dago oraindik. Bilera: Irailak 29, gaueko 20:30etan, Kultur Aretoan.

Oharra: Izena emateko epea: Irailak 26. Telefonoa: 693930 (Ainhoa). Partehartzaile bakoitzak 1.000 pezeta ordaindu beharko du ikastaroko.

HAURRENTZAKO IBILALDIAK

ANDOAIN

Irailak 28: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Ernio mendira irteera.

Urriak 12: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Auza Gaztelura irteera

ZINEMA


BILLABONA.

Iraila eta urriako programazioa

«Con air», «Adictos al amor».

«El secreto de los Abbott»

KOMIKIA



KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA

URPA

AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48 (24 orduak)

☎ 59 38 05 (Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol.
ANDOAIN (Gipuzkoa)

EUROPEAN SCHOOL HIZKUNTZ AKADEMIA

- JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- TALDE MUGATUAK
- IKASTAROAK URTE OSOAN
- "STEP UP" PROGRAMA, ESKOLARAKO LAGUNTZA
- ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE TITULUTARAKO AZTERKETAK
- AU-PAIR, WORK-STUDY,
- HIZKUNTZA IKASTAROAK
- IRLANDA-FRANTZIA-BREITANIA HANDIA

INGELES - FRANTSESA

**Kale Berria, 10 Tel. - Fax 69 39 76
BILLABONA**

Andoaingo

1997-98 Ikastaroak

Udala

ZERAMIKA	ARTE APLIKTUAK	PINTURA ETA MARRAZKETA <i>0 Maila (Hasierakoa)</i>	PINTURA ETA MARRAZKETA <i>1 Maila (jarraipena)</i>	EGUR TAILA	ARGAZKIGINTZA TAILERRA <i>(Hasierakoa)</i>	BIDEO TAILERRA <i>(Hasierakoa)</i>
Urriaren 13tik Maiatzaren 27ra	Urriaren 14tik Maiatzaren 28ra	Urriaren 13tik Maiatzaren 25era	Urriaren 15tik Maiatzaren 27era	Urriaren 17tik Maiatzaren 29era	Azaroaren 12tik Apirilaren 29ra	Urriaren 14tik Apirilaren 30era
Astl-Astz 18:45-21-15	Atear-Oste. 18:30-21:00	Astl. 18:00-21:00	Astz. 18:00-21:00	Osti. 18:30-20:30	Astz-Osti. 18:30-21:30	Astr-Oste. 19:30-21:00 Larun. 10:00-13:00
Monitorea E. Arresegor	Monitorea S. Santiago	Monitorea J. R. Amondarain	Monitorea J. R. Amondarain	Monitorea R. Beloki	Monitorea Iñigo Royo	Monitorea I. Izar de la Fuente



IZEN EMATEAK

Matrikulatzeko epea irailaren 22tik urriaren 2ra bitartean (biak barne). Urigain Kultura Etxeko idazkaritza zabalik egongo da goizeko 10etatik 13etara. Kultura Batzordeak bere gain hartzen du gutxieneko matrikulako kopurua osatzen ez duen ikastaroa bertan behera uzteko ahalmena.

Telefonoa: 30 08 23

MARTIN MUSIKA ESKOLA



69 24 35

KALE BERRIA, 14
BILLABONA

MARTIN MUSIKA ESKOLAN IKASTEKO DITUZUN AUKERAK:

- ♦ **TRIKITIXA** Solfeoarekin edota Martinen metodo bereziarekin.
- ♦ **PANDEROA**
- ♦ **SOLFEOA** Maila guztiak, musika-tresna bat ikastera behartu gabe.
- ♦ **AKORDEOIA** Botoiduna, tekladuna edo bassetia
- ♦ **DANTZA** Herriko plazetan dantza egiteko edota txapelketetan parte hartzeko.
- ♦ **PIANOA**
- ♦ **DULTZAINA**